

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 966

*26/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 15ekoa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena. Honen bidez, Aitziber Salinas Ruiz de Infante andrea Ehunetako Lurralde Koordinatzailea (Araba) izendatu da, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan, Trasplanteetako Koordinazio Orokorrari atxikita, Zuzendaritza Nagusian.*

772/2019 Ebazpenaren bidez, Giza Baliabideen zuzendariarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan, Trasplanteetako Koordinazio Orokorrari atxikita, Ehunetako Lurralde Koordinatzaile (Araba) lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia onartu zen, Zuzendaritza Nagusian.

Balorzio batzordeak aurkeztutako eskabide bakarra baloratu du, ukanbeharrak betetzen diren berrikusi, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Aitziber Salinas Ruiz de Infante andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Ehunetako Lurralde Koordinatzaile (Araba), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan, Trasplanteetako Koordinazio Orokorrari atxikita, Zuzendaritza Nagusian.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Aitziber Salinas Ruiz de Infante andrea izendatzea Ehunetako Lurralde Koordinatzailea (Araba), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan, Trasplanteetako Koordinazio Orokorrari atxikita, Zuzendaritza Nagusian.

Bigarrena.– Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2020ko urtarrilaren 20a.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Giza Baliabideen Plangintza eta Kudeaketarako zuzendariordetzari eta Araba ESIko Pertsonaleko zuzendaritzari jakinaraztea.

2020ko otsailaren 20a, osteguna

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 15a.

Giza Baliabideetako zuzendaria,  
MARÍA PILAR URIARTE BRIZUELA,